



UMANDI GURASO ELKARTEA

www.umandi.net/ampaumandi

GURASO ELKARTE BILERA

Umandi ikastolan 2014ko Apirilaren 10ean, eta aurrez horretarako deialdia egin ondoren guraso elkarteko partaideak bildu dira, ondorengo hauek bertaratuz:

Nuria Alonso Lafuente (lehendakaria), Ana Arroyo (lehendakari ordea), Yolanda Castillo (diruzaina), Itsaso Imaz (idazkaria), Beatriz Sáez, Nerea Salazar, Vega Terrazas, Arturo Amado, Ainhoa Velez, Juan Carlos Saenz, Rita Minguez, Peio Cernadas, M^a José Jaén.

Hasiera ordua: 19:00.

Bukaera ordua:21:15.

EGUNEKO AZTERGAIK

- **AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARTZEA.**

Bileraren deialdiarekin batera aurreko akta bidali zen irakurritzat eta onartutzat ematen da.

- **JOLAS TXOKOAREN PROPOSAMENAK.**

Enpresa desberdinen proposamenak begiratu dira eta azkenean aurreko urteetako enpresarekin , Xendarekin, jarraitzea erabaki da.

Aurten antolaketan aldaketak emango dira:

- Ordutegia luzatuko da, sarrera 9tan edo 10etan izanik, eta irteera 2tan.
- Iraupena aukeratu daiteke : 2 aste edo 4 aste.

Galdeketa orri bat pasatuko da, zenbateko eskaera dagoen aurreikusteko, bertan ekintza kostatuko dena jartzea komeni da.

Kontu korrontea berdinarekin jarraitzea erabaki da.

- **LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN BALIOESPENA:**

Liburuaren nazioarteko eguna ospatzeko guraso batzuk geletara sartu dira ekintza ezberdinak burutzera. Balioespena guztiz positiboa izan da.

- **BATZORDEEN EGOERA EGUNERATUA:**

XARBOT:

Aldizkariaren arduradunak aurrean ezin du aldizkaria egin. Norbaiten bila dabilta; diseinu eskolan ikasle batzuei proposatuko zaie lan hau egiteko, zenbat ordainduko zaien zehaztu behar da.

WEB ORRIA:

Kontu zaharra itxi egin behar da.

Sarrera bakarra egotea proposatzen da Guraso elkarterako eta ikastolarako.

KANPOKO EKINTZAK:

Azken bi asteburuetarako lagunarteko partiduak antolatzea pentsatu da, baina ez dago asegururik, beraz ordaindu egin beharko zen.

Datorren urterako Atlhonek prezioak mantentzen ditu baina hala ere edo monitoreei soldatak jaitsi behar zaizkie edo kuotak igo behar dira. Eztabaidatu ondoren kuotak igotzea erabaki da.

DENON ESKOLA:

-Kanpoko ekintza batzordea bildu zen, bertan azaldu zen diputazioak kanpo ekintzetarako aurrekontua %33 igoko duela.

-Eskolen eskaera da monitoreen aseguruak beste erregimen batetan sar daitezela ez erregimen orokorrean.

-Lan ikuskaritzak hiru ikuskapen asteko egiten ari da, ikuskapenaren adierazpena ziurtatutako posta bidez burutzen dute.

-Denon eskolak zerbitzu bat sortu du kanpoko ekintzen gainean Guraso elkarteei laguntzeko.

-LOMCE legearen gainean aipatu zen datorren urterako ez daudela aldaketarik, eta Denon Eskola eta EHIGE-k hitzaldiak antolatuko ditu LOMCE legea azaltzeko.

-Mapa eskolarra: Lehen hezkuntzako mapa eskolarra martxan jarri da. Bigarren hezkuntzako zonifikazioa saiatuko dira urte honen bukaeran ixten. Gure ordezkariaren eskaria izan da 2 erreferentzi zentro izatea, adibide moduan beste eskola batzuk jarriaz.

Eskatu da errentagatik ematen den puntua 42.000 € tik 80.000 € ra igo dadila.

Datorren urterako ez dago garraiorik Koldo Mitxelenara joateko.

IKASTOLAKO JAIA:

2 puzgarriak aukeratzen dira.

Kartel lehiaketa egingo da ikastolako jaiko kartela egiteko.

BARATZEA:

Asteburuan baranda egin da .

Patatak eta azenarioak landatu dira, handiek zuloak egin dituzte eta txikiek landatu egin dute.

- BESTELAKOAK.

Berrito ere 5. Mailan irakasle batekin dagoen arazoa jarri da mahai gainean; gaizki zuzendutako azterketa bat etab.

Luze eztabaidatu ondoren erabaki da zuzendaritzara idatzi bat aurkeztea, arazo honi aurre egiteko eta konpontzeko zer egin den argibideak eskatuaz.

HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN PROPOSAMENA:

Orain ezin da lorategira sartu, hau da, ikasleek debekatuta dute sartzea. Irakasleen proposamena da prestatu itxi eta sartu daitekeenean, hau da , lokatzik ez dagoenean txikiekin bertan sartu.

BATZORDEETAN BOLONDRES FALTA:

Kanpo ekintzak , diruzaintza eta xarbot arduradunik gabe gelditzen dira.

SAN FILIPPO:

Gaixotasun honen ikerkuntzarako laguntza moduan mugikorren jasotzerako kutxa bat jarriko da sarreran.

GURASOEN PATINAIA TALDEA:

Stickak eta bolak erosi dituzte eta ikastolak erabil ditzazke.

Beste aztergairik gabe bilera bukatutzat ematen da 21:15etan.

Nuria Alonso

Itsaso Imaz

-Lehendakaria-

-Idazkaria-